

KARMENGO ANDRE MARIARI

BEDERATZIUENA

TA ASTEROKO IKERTZIA

Aita Martin KARMELDARAK EGIN ZUANETIK

Iruretagoyena'tar J. J. APAIZAK

GIPUZKERAZ JARI DU

ZORNOTZA — AMOREBIETA

JAUNGUIKO ZALE'REN IRARKOLAN

1927



Karmenango Andre



Karmengo Andre Maria




H. 8751
R-36310

ATV
5.899

Karmengo Andre Mariari

BEDERATZIURENA

TA ASTEROKO IKERTZIA



Aita Martin KARMELDARAK EGIN ZUANETIK

Iruretagoyena'tar J. J. APAIZAK

GIPUZKERAZ JARI DU.

Zornotza - Amorebieta

JAUNGOIKO-ZALE'REN IRARKOLAN

1927

Nihil obstat

Lic. Petrus de Anasagasti

Censor

Imprimatur

Victoriæ, die 7 iunii 1927

† *Episcopus Victoriensis*



KARMENGO ANDRE MARIARI

BEDERATZIUENA

Gurutze santuaren etc.

Maita-Damua

Jesukristo neure Jauna, Jaungoiko .ta Gizon egiazkua, neure Egile ta Zeruratzalea, zugan zinisten det eta zure eruki azkengabea itxaroten det uste osoaz; beste gauza guztiyak baño maiteago zaitut, ontasun uts-utsa zera-ta. Etzaitut naitzabatu nai geyago, barkatu egizkidazu nere esker txar eta gaiztakeriyak.

Zure gorputz ori zauritua, burua arantzaz josia, ta gurutzetik zintzilika ikusten detenean, neke oyek guztiyak nere eruz eraman zinu gogoraturik, luferano auzpeztutzen naiz lotsaz. Nere maitasunez gau ta egun sagrariyoan ogi-irudipean

ikusten zaitudanean nere biyotzari deika, nere eskergabetasunak lotsatzen nau, ta ez dakit nola zure aurera agertu. Barkatu egidazu, Jesus erukitsua, zure ontasun azkengabe ori iraindu detalako. Leiz beltzeko sugaretan nitzan onezkero, zu nere eruki izan ezpaziñan. Zure odol jainkozkoak eta zure biyotz gozo oren atsekabeak zeruratuko nauten uste osoa daukat. Lagundu egidazu zeure goiargiyaz; ori gabe, ezer ez naiz, gauza onik ezin egin det; beraren bidez, beriz, guztia nezake-ta. Eskertxañik ez geyago; zuria naiz, zuretzako jayo nitzan: zer nai dezu nigandik, Jauna? nere adimen eta biyotz au? Guztia zuretzako det, ene Jauna; zure eskuetan jartzen naiz, zuk nai dezuna nai det; era onetan zoriontsua izango naiz erbeste onetan zu maitatuaz eta gero betiko zoriondegian azkengabeko egunetan zu ikusiaz. Ala izan bedi.

Eguneroko eskaera

Zeure onetara nator itxaropen osoaz, Erugabeko Andre Maria ta Karmeloko apainduri ta edertasuna zeran, ene Ama

laztana. Karmengo mendi donean autu zenduan lorategi atsegintsutik, alaitasun- ez eta goi argiz betetzen dituzu zure seme-alaben biyotzak, maitasun edefaren Ama erukitsua zeran ene Andre guztiz garbi ofek. ¡Zein pozkiro egoten diran, zugatz zabal-ongile baten kerizpean bezela, zure oyalpe ta ardurapean! Egari dana iturri otz - gardenera bezela, ume maitalea amaren magal eta laztanera bezela, biyotz naigabetua adizkide leyalengana bezela, Zugana nator ni, karmengo Eregiña, eta zeure begi erukitsuaz begira nazazu.

Negaraezko ibar onetan galbidez eta elorriyoz inguraturik nabilela, ¿nork obeto lagunduko dit zuk baño, ene Ama Maria? Artu egidazu abegi onez zure biyotzari uste osoaz egiten diotan eskaera leyatsuan, batez ere bederatziuren onetan opa deten ontartea iritxi egidazu, neuk ere zure aintza ta gorapenerako beste askok bezela zabaldu dezadan egi au: iñoiz ez dezula bialdu utsik zeure egapera eskean eldu danik. Amen.

LENENGO EGUNA

IRAKURKIZUNA

Andre Maria zeruko bidea

Ama Birjiñaganako jaiera zerurako diranen ezaugarriya dala, aitortzen digute ao batez eleiz-gurasoak. ¡Bai au pozgarriya, Ama zerukoa maite dutenentzat! Onela itzegiten digu berak liburu donean: «Atsedentoki bat biñatu nuan emen, eta Jaunaren etxealde ugarian biziko naiz. Neure magalean etzan zan Jaun Egilea eta onela itze gin ziran: Jakob'en erian bizi zaite ta Israël izan bedi zure altxoña ta neure autatuen artean in daña artu zazu. Zoriontsua neri entzuten ditana ta nere atetan beti zai dagoana; ni arkitzen nau nak, betiko bizitza arkituko du ta Yaunagandik zoriona iritxiko du».

Itz auen bidez azaltzen digu Andre Mariak bere ardurapean jartzen diranen alderako Jaungoikoak eman dion eskubidea; erakutsiaz zabalik daudela beti zeruko atea berak zaitzen dituanentzat. Oregatik Andre Maria'kiko jaiera deitu diyote zerurako maladia ta zoriondegiko atea. Pedro-Damiano doneak onela diyo: «Andrea, zeuri eman dizkitzute zeruko giltzak; zeruko maladia Zu zera; zure bidez Jaungoikua zerutik luñera jetxi zan eta Zugandik gizasemeak luñetik zerura igotzen dira, Jakob erka bari amesetan agertu zitzayon mañaditik aingeruak igotzen ziran bezela».

Bein batean lekaide (praġe) santu batek zeruraño eldutzen ziran bi maġadi ikusi zituan, bat goġiya ta bestea zuriya. Jesukristo maġadi goġiyan buruan zegoan ta Ama Birjiņa bestean. Eskalera goġitik zijuazetak, maġa batzuek igo orduko bera erortzen ziran. Orduan Ama Birjiņak maġadi zuritik igotzeko esan ziyen, eta ala eġez igotzen ziran goraño ta Ama Birjiņak eskua luzatu ta zerura sartzen zituan.

Onek esan nai du, gu ere zerura elduko gerala, Ama eġukitsua geure alde badaukagu. Beraren bitartez iritxi dute autatuak pekatuen barkamena, onbidean iraupena ta betiko zoriona.

Au entzunda poztu litekez karmengo Ama gozoaren babespean bizi diranak; atsegiņez lasaitu eta zabaldu litekez beren biotzak; berak eta beren izenak zerurako diranen artean jaġiak daude-ta. Bere semiak igotzeko zerutik luzatu digun karmengo eskapulariyo goragaġi ori da maġadi zuri-eder ori.

OTOITZA

Guztialdunak apaindutako izakirik edeġena ta sortzez garbi - garbiya zeran karmengo Ama laztan maitagaġiya; zeure Eġugabeko Soġeraren irudi berezi bat agertu zitzayon Elias igarleari, itxasotik karmen mendiruntz igo zan odeitxoan. Itxasotik jeiki baziņan ere, mingoztasunik

gabe, goi - eskañez bete - betea, erugabe
sortu ta erten zinan zu Jaunaren gogotik,
eta Elias'en odeitxoaren antzera zabaldu
zera graziazko odei zuri urtsua Karmel
mendi agurgaritik lurbira osora, eta euri
ongile oren bidez erne ta zuzpeltu dituzu
donetasunezko lore usaintsuak. Goraldu
zaitzate la izaki guztiyak, ene Ama zora-
gariya, zeure Sofera garbiyan; jatorizko
edertasun zoragari oren bidez gozatu ta
pozez bete bitez lualde guztiyak. Bedein-
ka gaitzazu erbesteko ibar onetan zeuri
deika gauden guztiyok, itzuli itzazu gu-
gana zure begi erukitsu oyek, eta izan
zaitez guretzat zeruruntz eramango gai-
tuan zorioneko maladia. Orain beriz iritxi
egiguzu Bederatziuren onetan zure esku
ongiletik itxaroten degun ontartea, gure
onerako bada; oretarako otoi egiten dizu-
gu biotz-biotzez esanaz: Agur, Eregina
ta erukiz beteriko Ama... Salbe, Rejina...

*Orain bakoitzak eskatu bekio Andre
Mariari nai duan ontartea.*

G e r t a e r a

Karmengo Andre Mariak, Simon Stok doneari

eskapularioa (kutuna) ekañi zion egun berian, jantzi onek zerutik zuan almena erakusten asi zitzaigun, 1251'ko Gariñaren 16'an.

Alkar il arteraño ekiteko asmoa ta erabakia artu ondoren, bofokatu ziran bi gizon. Laister asko, Balter zeritzayona jausi zan zauriturik luf-era, ta noiz ilko zai zegoan, bere buruaz etsita, deabruari deika. Berealaxe beraganatu zan Pedro Lintonia apaiza ta Jaunari otoi egiten eta eskatzen zegoan, biotz gogor ura bigundu zezan. Era onetan zegoala zeru goitik itz auek entzun zituan: «Zuaz laisterka karmelo'ra, Pedro, ta ekañi ezazu onera nere seme maite Simon Stok». Eldu zanean karmeldaren Nagusia, gaxoa odolez estaldua, biraoka Satanas'i anima eskeintzen arkitu zuan. Gurutze donea egin eta ipiñi zion bereala Ama Birjiñak aurreko gabean ekañi zion eskapulariyoa. Jantzi done arek ikutuakin batera, arpegia aldatu zitzayon Balter gaxoari, erabat eman zion negaari, Simoni aitortu zizkiyon bere gaiztakeri aundiyak, eta gurutzeari ta eskapulariyoari muiñ egiñez pake osoan il zan. Ala ere bildur zan bere anaia anima aren azkenakiko, baña Jaunak bialdu ta agertu zitzaion, onela itz egiñaz: «Andre Mariaren erukiz eta bere eskapularioaren indañez ez naiz jausi betiko leizbeltzera, ta zerurako aukeraturua naiz».

(Orain esan leizke otoitz goralariak).

BIGAÑEN EGUNA

Gurutze santuaren eta eguneroko eskaera

IRAKURKIZUNA

Andre Mariak guri digun maitasuna

Andre Maria gure Ama da ta ortik atera genezake zenbat maite gaituan. Geure Ama da Maria, ez aragiz, baizik maitasunez. Maitasun edeñaren Ama naiz ni, esaten digu berak.

¿Zergatik maite ote gaitu oñenbesteraño? Jaungoikoari diyon maitasuna aundiya dalakota Jesus'ek gurutzean iltzen eta azkenetan zegoala gure ardura berari eman ziyolako.

Agindu batean sartzen dira Jaungoiko ta lagun-urkoaganako maitasuna. Adar biko landaria da onbiderik bikañena dan maitasun au; Jaungana zabaltzen dana bata, lagun-urkoaganakoa bestea; bata zabaltzen dan neurñan, luzatzen da bestea ere. Augatik Jaungoikoari maitasun irazekiya ziyoten doneak, santuak, biziya galtzeraño eldu ziran beren anayak zeruratzearen. Jabier eta Beñiotxoak Indiyetan, Sales, Pidel eta Paulino doneak sinisgabeko animen on naiaz pozik galdu ta eralki zituen beren aberastasun guztiak.

Ori egin badute santuak lagun-urkoaren onerako ¿zer ez du egingo erukañiyen alde Ama Birjiñak, santu ta aingeru guztiyak baño maiteago badu Jaungoikoa? Ama guztiyak beren umeai

diyoten maitasun samurra irudi ilun bat besterik ez da Andre Mariak guri digunaren aldean.

Ain samurki maite gaitu izan ere gure zeruko Amak, Jesus'en aginduz bere egapeko semetzat artu giñuzenetik. Jaungoiko-Semeak eman zion azkenengo agindu au, biyotz mamiyan ezarita gelditu zitzayon. Gu zeruratzearen eman zuan eriotza Jesukristo'k eta il zorian zegoala bere Amari eman zion gure ardura. Batera dijoaz Mariagan Jaungoikoaren Ama ta gizonen ama izatea; amatasun batek bigaren au dakar, ta onetxek eman zion Gurutze oñean azkeneraño zutik irauteko kemena.

Ah! Antxe ezagutu zuan bere ardura guzizko ura ez zuala izan bear iltzen zeukan Seme arentzat bakarik, bere egape gozoa ordu artan sortu zitzaizkion seme guztientzat zabaldu bear zuala. Galtzen du Jaungoikoa, ta gizona irabasten du; bañero Ama izaten asi da oraintxe: *Homo et homo natus est in ea*; Erregearen Ama ta erbestetuen Ama, Epailariyaren ama ta erudunen Ama. Beraz biyon Ama izan ezkerro, andikan zetoñen Jaungoiko ta gizonen arteko begipe, pake-egile ta zerupidea izatera.

Ondo daki Ama onek bere neke samiñen artean jayotako semeak gerala, Jesus'en odolaz beñero erosiak gerala; ¿nola ez gaitu maitatuko, bada, samurkiro? ¿nola ez gaitu babeztuko alako neke-min gañatzen artean sortuak bagera? Onegatik Andre Mariaren edestia, kondaira,

bere seme gizonai gizaldi ta gizalditan egin diyen esker eta ontarte ugariyen txorta eder-usaintsu bat besterik ez da. Gure karmengo eskapulariyo maitagañi au da ontarte auen artean aundiyyenetakoa.

Bigaŕen egunerako otoitza

Karmengo Ama laztan maitagañia; Elias igarle sutsuaren ondorengoak zeuganako maitasun zintsoa erakusteko, ta zure biotz guzizkoari esker onaz erantzuteko, beste iñork baño lenago jaso zizuten karmel-mendian zeure aintzaz lurbiran izan dan lenengo eleiza, izanik baita ere, karmel-dañak zu lenengo agurtu ta beti gogatsuen bedeinkatu zaituenak.

Egizu, ene Ama goiargiz bete oñek, izan dedila gure anima Jaungoiko altsuaren bizileku atsegintsua ta onbidezko loretegi argiya; iritxi egiguzu zuk, graziyaren Ama oñek, zaitu dezagula animako goiargiya, beste gauza guztiyak galduko baditugu ere. Orain beriz iritxi egiguzu Bederatziuñen onetan zure esku ongiletik itxaroten degun ontartea, gure onerako bada; onetarako otoi egiten dizugu biotz

-biotzez esanaz: «Agur Eregiña ta erukiz
beteriko Ama... Salbe, Rejina...

*Orain bakoitzak eskatu bekio Andre
Maria'ri nai duan ontartea.*

Gertaera

Prantziko neskatxa gazte batek, zerbait munduzalea izan aŕen, beti soñean eramaten zuan itxaropen biziaz karmengo kutuna. Bein batean dantza lekura agertu zitzayen galai apain bat, eta bana-banaka ango neskatxa guztiyak eraman zituan dantzara. Bakarrik geratu zan deitu gabe len aitatu dana. Dantza tokitik erten zanean galai gazte-eder oŕi, oñazpitan sugar txinpertak oartu zizkiyon, baña ez zion ajolarik egin, irudipen utsa zalako ustean.

Gerotxoago lekaime edo erlijiosa izateko asmoaz bizitza guztiko pekatuen aitortza egin zuan Juan B. Bianney Ars'ko Abade deuna. gaz. Onek aitortza bitartean galdera au egin zion: Onelako eguneko dantzaldi artan gertatu zitzaizuna gogoratzen dezu, ene alabatxoa?— Bai aita, erantzun zion.—Eta besteakana bai, ta zugana eldu ez zana nor zan bai al dakizu?—Ez dakit, bada, aita.—Demoniyua bera zan ba; berakin dantzatu ziranak kondenatuta daude batzuek, eta ondameneko zori aundiyan besteak ere, zuri ez zizun ikutu, Karmengo eskapulari-

yua soñean zeneukalako. Oña nola laguntzen diyen galbidean karmengo Amak, beraren maitasunez eskapularioa daramaten bere seme-alabai.

(Orain esan leizke «Otoitz goralariak»).

IRUGAÑEN EGUNA

IRAKURKIZUNA

Andre Maria pekatarien Ama

Egun batean Andre Mariak, Birjida doneari esan zion: egiaz damutu ta zeruratzen sayatu nai duan pekatariyaren Ama dala, ta geyago poztutzen duala pekatari erukañiyen Ama izenaz deitutzeak, aingeruen Erégiña deitutzeak, baño.

Pekatu lañyan dagonak biotza naigabez samintzen diyo, bere seme Jesus'en nekaldi gogoña oroiazi ta bere ontasunai esker beltzez erantzuten diyola ikusten dulako. Bein pekatari bat onela mintzatu zitzayon: «Nere Ama zerala erakus zazu». Baña Mariak berari erantzun zion: «Nere semea zerala zeuk erakus zazu».

Ala ere pekatariyak, galduena izan da ere, bere egoera negargañitik erten nai badu, Ama Birjiña bitarteko arturik, bere eskari ilotzak iritxi ezin lezakena, Ama onen bidez iritxi lezake.

Trento'ko Eleiz-batzañak erabakita dakigu, pekatuan daudenak egindako otoi ta egite onak, berez ilak badira ere maitasunetik ez datoze-lako, ala ere beti biguntzen eta erakartzen dutela Jaunaren erukitasuna, Jesukristo berak itz aue-tan aitortzen digun bezela: «Eskatu ezazute ta artuko dezute».

Zinispide pozgañi au txit egoki dator Andre Mariagan, Jaungoiko ta gizonen Ama agurgañia-

gan. Ama batek baleki bere seme bi asafeturik dabilzala ¿ez aluke alegiña egingo beren artean pakea jaítzen? Orixe gertatzen zayo, bada, Ama Mariari, pekatariak Jesus iraintzen dutenean. Orduan pekataria beragana etortzea nai du, bere seme Jesus'ekin pakeak egiteko bitartekotza eskatzera. Pekatari bat, naiz ta danik aundiyena izan da ere, bere oñetan ikusten duanean, ez dio hegiratzen berak egindako gaiztakeriyai, baizik beragana dakañen asmoari; ta ona bada au, naiz ta luñean diran pekatu guztiyetan erori bada ere, abegi samuñaz laztanduko du, ta animako zauri guztiak sendatu ta grazia-
ren argi beñiaz jantzi ta berbiztu arte ez da gelditu ta atsedengo.

Gorputzaren bizimena anima da, ta animarena beñiz graziya. Eta Mariak esaten digu, bera arkitzen duanak, goiko bizitza arkituko duala. Onegatik esaten diye Bernardo estitsuak graziya galdu duen pekatariyai, Mariagan bilatu dezatela. Gabriel goiaingeruak ere onela agurtu zuan: Ez bildur izan, Maria, Jaunagan graziya arkitu dezu-ta. —Eta Andre Maria beti graziyaz beterik egon bazan ¿nola diyo graziya arkitu duala?—Jakitun batek diyonez, graziya arkitu zuan, galdu zuten pekatariyentzat. Betoz, bada, pekatariyak Mariaren oñetara, ta esan begiyote uste osoaz: Ene Ama maitea, arkitutako gauzak galdu dituanari biurtu bear zaizkiyo; zuk arkitu dezun grazi eder ori, guk galdutakoa da; emai-

guzu, bada, Ama zurekin eta zure seme Jesus'ekin bat egiñik betiko zorionean bizi gaitezten.

Egoki deitu zion Agustin doneak Mariari pekatarien itxaropen bakarra; here bitartez ematen dizkigu Jaunak barkamena ta iraupena. Egunsentiko izañak eguzkia dakar ondotik; Andre Maria graziazko egun sentia da, ta bere egapera biltzen dan pekatariak laister ikusiko du bere seme Jesus, zeru-luñen eguzkia. ¡O Maria! Zure eskuaren almena bikaña da, zure egapea zorioneko bizitzaren bidea, zure irudi baten ondoan iltzen bagera, zalantzik gabe zerurakogera; iñoiz ez da entzun zuregana laguntza eske etorritakorik, betiko leizbeltzera ondatu danik-eta.

Karmengo anaikideak poztu zaitezte egi auekaz, eta ez utzi egur bat bera ere zuen begiak Ama oréngana itzuli gabe.

OTOITZA

Karmengo Ama laztan-maitagañiya; zure seme karmeldarai zeniyen zaletasun bereziak eraman ziñuan beren artera bizi leku onetan zeudenean, ta zure ikustaldi opagañiaz zeruko atsegiñez betetzen ziran, eta azkeneraño onbidean jaraitzeko maiteki zuzpeltu ta indartzen zenituan.

Zure onginaí samur orégatik añen es-

katzen dizugu, lagun egiguzula egunoro zerutiko argitasun eragileaz, Jaunaren legea bete dezagun zintzoro zeure ardura-pean il arte. Lagun egiguzu, Ama lazтана, erbeste onetan; eramán gaitzazu beti zeru-bidetik, zeure arpegi zoragañiya ikustera lenbaitlen eldu gaitezen. Orain beñiz iritxi zaiguzu Bederatziuñen onetan, zure esku ongiletik itxaro degun ontartea, gure animaren onerako bada; onetarako otoi egiten dizugu biotz-biotzez esanaz: «Agur Eregiña ta erukiz beteriko Ama... Salve Rejina...»

G e r t a e r a

Amairugañen gizaldian Jestría zeritzayon Inglateña'ko uriyan, izuñi edo gaitz ondatzale bat sortu zan, eta bera egiten ari zan eriotz eta ondamen aundiak geldi erazteko añenaldi edo erogatiba bat egin zan kalerik-kale Karmengo Andre Mariaren irudiaz, eta bertan karmelita lekaide edo prañeak ere zijoazala. Kale ertz batean Karmengo Amaren añizko irudia zegoan eta bere auñera eldu ziranean, onek bizirik balego bezela, bere besua luzatu zuan bere auñian «Agur Maria» esaten zeuden karmeldañen gañeruntz, ta ongietoñia eman ziyen arpegi alaiatz,

eta eskua berakana luzatuaz onela itzegin zuan: «Ona emen nere anaiak» ta azkenean au gañeratu zuan: «Auetako bat dagoan tokian, nere anai bat dago».

Au bai pozgarriya karmeloko Efégin samuñaren kerizpean bizi diran anaikide ta eskapulariyodun guztientzat; Jaungoikoaren Amak bere anaitzat dauzka-ta.

LAUGAÑEN EGUNA

IRAKURKIZUNA

Ama Birjiñak gozatzen du eriotzaldia

Benetako senide ta adizkide zintzoak ez dira ezagutzen zorion egunetan, baizik neke ta zorigaitzez inguratuak gaudenean. Luñeko adizkideak ez dute utziko ugaritasunean dabilen adizkidea, baña laister bastartuko dute urri ta zoritxañez beterik ikusten badute. Ez du erabiltzen burupide au Andre Mariak bere adizkideantzat, beren ezbiar eta naigabetan bigun eta maitaki laguntzen diye ta inoiz baño geyago lañi ikusten dituanean, batez ere eriotz aldiyan.

Bere Seme Jesus'en eriotzako naigabe samiñak iruntzi zituanetik, beste seme guztiyai ere ordu lañi artan añetaz laguntzeko gogo beroa sartu zitzayon. Oñegatik esaten diyogu egunero ta ainbeste bider: «Jaungoikoaren Ama donea, eñegutu ezazu gu pekatariyen alde orain eta gure eriotzako orduan».

Len egindako gaiztakeri, bereala datorkien epaitza, betiko zoriaren zalantza ta beste one-lako estuasun askoren bidez, lañiyak izaten dira eriotz orduko naigabeak. Orduan datoz leizbeltzeko deabru gaiztoak egundo baño leyatsuago, iyaya beren atzapañetatik betiko iges egin duan anima garbi ura ondatu naian, iñondiko erorbide guztiak bere aurean jañirik. Agustin aundiyaren iritxiyan ez da iltzen iñor ere, ordu artan deabru

ikaragañiya ikusi gabe. Martin Tours'ko Gotzai doneari deabru izugañi bat agertu zitzayon bein batean; baña santuak gurutzearen bidez bota zuan andik, erabat esanaz: ¿zertara ator onera, pizti zikin ori? ez daukak ezer artzekorik nigan.

Andres Abelino doneari amar miña deabru amonuz beterik agertu omen zitzaizkiyon eriotz aldiyan, ta beren eraso gogoñen bidez aulduta omen zegoan, negañez, ikaraz dar-dar eta arpegia beztuta. Bere oe inguruan zeuden erlijiosoak ere negañez omen zeuden bere efukiz. Alako batean amaitu zan boñokaldi gogor ura ta pake gozoan gelditu zan, Ama Birjiñaren irudi bateri begi-begira; eskeñak emateko bezela makurtu zuan burua ta pañe antzean gozaro il da gelditu zan.

Eriotzaldiko lañitasunetan ongi aterako gera gu ere, Andre Maria gure alde badegu. Bonabentura doneak diyonez, beraren jaiera dutenai laguntzeko, Mikel goiaingerua beste aingeru askokin bialtzen die, Jaunaren auñera epaya artzera dijoazenean ere, beren alde egin dezaten deabruak salatzen dituanean.

Zoriontsua izango zera, ene kristau maite ori, eriotzaldiyan Andre Mariaren zaitza ta añeta zeuregan izateko gai bazera; betiko zoriona irabazteko bide egokiagorik ez dago ta era onetan egun senti alai baten antzekoa izango da zure eriotza opagañia; ala aitortu dute Mariaren seme-alaba askok eriotz orduan pozez beterik itz

auek esanaz: Neuregan ikusi ezpanu, ez nuan sinistuko ain gozua izan zeikenik iltzea. Oe ondora etoriko zazu karmengo Ama Efégiña bere eskapulariyoa soñean ba dezu, ta biotzez eta uste osoaz esan zeneikiyo: Ene Ama gozo-gozoa, lagun zaidazu ordu onetan, zeurea naiz ta zeurekin il nai det-eta.

Otoitza

Karmengo Ama laztan-maitagaríya; umeak beren estualdiyetan amaren magal eta besoetan babesten diran bezela, zeure egape gozoan babestu dituzu beti zure seme maite karmeldáak, ekaitz karkáak beren kaltez jaiki diran guztiyan. Karmeldáren Lagundia zure izena aintzatu ta goratzeko sortua bada, ta zure aunditasun eta guzizko edertasunak zabal-tzea beste amesik ez badu, ¿nola utzi laguntzik gabe, Jaunagandik guztia lezaken zure esku oírek? ¿norengana zuzendu zitekean obeto Simon Stok donea, zure on-tzitxoari amoíozko ekaitzak eta zoramen txarézko aizeak eraso ziotenean? Zure oñetan auzpezturik gogoz eta bero onela otoi egin zizun: «Andre Maria, karmel-

lorea, masti aletsua, zeru-argia, Birjiña garbi berdingabea, Ama maitale samuía, itsasoko izaía; zure seme begikoak geran karmeldar auei zure almen eta eskubideen ezaugarí dan agerkai bat eman egiguzu». Bereala agertu zenitzaion ene Ama érukitsu ori, karmengo jantzi maitagaríya eman, zure biozpera ta maitasun gaía erakutsi ta bide eder aiek luíean zabaltzen jaíaitzeko kemendurik.

Zure oyalpe gozora bilduko gera gu ere, karmengo masti loratsua, aragiak eta gizarte gaiztoak geure animako ontzitxoa ondatu naian dabilen guztian; Zuggan itxaroko degu, gure estuasunetan, ene Ama Érukitsua, zeru argiya; zure egiazko seme izatea ta zeruan beti zure goraldi zoriontsuak kantatzea iritxi egiguzu. Orain beíz gureganatu ezazu Berderatziúren onetan zure esku ongileari eskatzen diogun ontartea, gure animen onerako bada; onetarako otoi egiten dizugu bioz-biotzez esanaz «Agur Éregiña ta érukiz beteriko Ama...» Salve Regina...

Orain bakoitzak eskatu bekio Andre Mariari nai duan ontartea.

Gertaera

Asko maite zuan Andre Maria txikitatik mutiltxo batek. Bere irudia ikusten zuan guztiyan «Agur Maria» edo «Salbea» esaten zion txit gogoz. Karmengo eskapulariyua zeraman beti soñean bere zeruko Amaren oroigaririk ederentzat bezela. Ikastetxean zegoala, gau batean bere zuzendariak oe aurrean belauniko arkitu zuan, eta zergatik oeratu ez zan galdeturik, erantzun zion: Eskapulariyoa puzkatu egin zitzayola, ta ez ziyola ekañi artean atezaiak beñiya. — Tira, zuaz oera azkar—¿Baña gaur gabean iltzen banaiz? ni ez nua lotara eskapulariyo gabe. — Berberak ekañi zion bereala eskapulariyoa, ta pozik oeratu zan orduan Ama karmengoaren laztan artean etzan balitz bezela. Eta lo ori azkenengoa izango zala ¿nork sinistuko zuan? Ba uñengo goizean ilda arkitu zuten, bere Amaren kutuna eskuetan elduta zeukala. ¡Zorioneko aingerua, karmengo Andre Mariaren laztanetan oetik zerura juan zan gaztetxo ura!

BOSGAÑEN EGUNA

IRAKURKIZUNA

Maria maite duanik ez da galduko

Geyegia dala irudituko zayo batenbateri epai au: ez da kondenatuko Andre Mariari egizko jaiera dionik. Baña egia da ta eleiz-gurasuak berak ala aitortzen digute.

Itxaropen onegaz pekatu geyago egiten jaraitu nai dutenentzat ez da aditu bear epai au. Uste oker onen bidez gaiztakeriyan iraun nai dutenak, ez dute azkeneko orduan Mariaren erukirik izango. Pekatariyak izan aŕen, onbidetu nairik alegintzen diranentzat eta Jaungoikoaren Amagana laguntza eske gogoz eta zintzoro datozenentzat aditu bear da egi au.

Anselmo irakasleak au esaten digu: «Nekez zeruratuko da Andre Maria bere alde ez badu, ta nekez betiko galduko da Ama Birjiñagana uste osoaz zuzendu ta onek erukitsu begiratzen badio». Geiago diote oraindik beste irakasle done batzuek, aitortuaz: ezmesik gabe zeruratzen dirala Mariari egiazko jaiera diotenak eta betiko leizbeltzera ondatzen dirala Maria maite ez dutenak. Erbeste onetatik zeruruntz dijoan ontziya da Maria, ta kutxa zoriontsu onetan sartzen ez dana, betiko ondatuko da. «Ni maite ez naunak eriotz betikoŕa maite du» dio Andre Mariak.

Geroago beste au diyo: «Nigana datoŕena, ta neri entzuten ditana, ez da galduko». Onegatik

ainbeste alegintzen da deabrua, graziya galdu duten pekatariyai, Mariaganako jaiera ta zaletasuna utzi erazten. ¡Ah! nolako amorua artzen duten deabruak, zaletasun au kendu ezin dutenean biotzetatik. Sena'tar Katalina doneari esan ziyon Jaunak, Ama Birjiñari eman ziyola, bere ardurapean ongi bizitzera zetozen anima guztiyak zeruratzeko eskubidea. Au iristeko askotan atzeratu du mirariz eriotza, Jaunaren asarean zeudenak graziyara biurtu arte.

Gure zeruratzalea Jesukristo dala diyo sinismenak, zeru-luñen pakeak egin eta bere odolaz beñiro erosi giñuzelako. Baña bere graziyak guri santuen bitartez ematea asko atsegin zayo, ta batez ere bere Ama gozoa maitatu eta gure bitartekotzat artzea pozez ikusten du. Oregatik diyo bere Amari Jesus'ek: «Zer nai dezun eskatu, ene Ama». Ta ¿bai aldakizu zer eskatzen diyon? Zorigaiztokoentzat erukia, pekatariantzat barkamena. Jaunaren agintza bere zuzentasun eta erukitasunez azaltzen da; baña zuzentasuna beretzat gorde ta erukitasunaren giltzak bere Amaren eskuetan utzi ditu.

Era onetan sinistu genezake osoro, asieran epai pozgarriyakiko aitatu deguna: leizbeltzeko sutegira ez dala ondatuko Ama Mariaren egiazko zalerik, eta gutxiago Karmengo Amaren eskapulariyoakin iltzen danik.

Ama Birjiña maite dutenen alde esaten dana,

askoz geituta esan bear dala Karmengo kutuna sinismenez daramaten alde, aitortzen digu Kolombiere Aitak. Utzean ez da geldituko Karmelo'ko Eregiñaren eskeintza, sinismenez badarabilgu bere jantziya.

OTOITZA

Karmengo Ama laztan-maitagaña; zure karmeldar guztiak jakin zezaten zein ongaña dan zure mendean egotea, Simon Stok doneari zeure kutun edo eskapulariyo edera ekañ zenion aingeruz inguraturik, eta itz oroigari auek esanaz: «Artu zazu, seme maite oñek, zure Lagundiko jantzi au, neure zuekanako anai-arebatasun ezaugaritzat, eta berau jazten duten karmeldar guztiak nere maitasunaren agerkaia izan dezaten; beronekin iltzen danak, leizbeltzeko sugařetan ez du ikusiko bere burua».

Eskeñak, Ama maitea, eskeñak; zeure itza ezpalitz, ez genuke sinistuko ain aundia danik zure guganako maitasuna. Karmengo kutuna da guregan zure biotza, zure besua, zure indařa ta zure maitasuna. Bedeinkatua izan bedi, Ama laztana, so-

ñeko agurgañi au Simon doneari ekañi zenion ordua. Erbeste onetan zure semeak dauzkagun erorbideak ongi dakizkizu, ene Ama erukior-gozoa, ta oregatik entzun itzazu gure arnas estu, sotin eta eskariak, eta lagundu egiguzu gure estuasun lañietan. Jantzi ta erabili nai degu zure soñeko eder au, berari dagozkion ontartekak irabazi ta zure oyalpean eta ardura-pean bizi nai degula aitortzeko; ta zuk le-yaltasun onen ordeez eman egiguzu sartzat graziazko janaria ta guziok zeruan sartzeko bear degun apainduri argia.

Orain beñiz zure esku ongiletik iristeko Bederatziuren onetan opa degun ontartea, agurtutzen zaitugu bioz-biotzez esanaz: Agur, Erégiña Ama erukioña gure bizi, gozo ta itxaropena: Salve Rejina.

Gertaera

Karmengo eskapulariyoak ezbear askotarako laguntza bereziya duala, mirari askoz ikusiya dago.

Oratorio Anaidi'ko Aita Yeun'ek berberak ikusitako mirari au dakar. Perikex'ko mixiolariak Aulaye zeritzayon uri batean mixioak ema-

ten zeudela, etxe eder batek su artu zuan. Orduan an ur̄ean zeudenetako bateri gogoratu zitzayon, ogei urte auferago su aundi bat itzalduzala, eskapulariyoa sugaretara botata. Onen esanera, an zegoan mutil gazte batek, Juan Lagelageritzayonak, bota zuan sugar erdira soñean zeraman karmengo kutuna, ta jañigariya! bapatean itzalduzan su guztiya, ta ur̄engo egunean oso osorik arkituzan eskapulariyoa.

Itxasoko urak ere askotan baretu izan dira, beren erdira eskapulariyoa botata, ondoratzeko zori estuan arkitu diranian karmengo eskapulariyodunak.

SEIGAREN EGUNA

IRAKURKIZUNA

Andre Maria maitagaría da

Gauza bat maitagarí egiten dute bere edertasun eta ontasunak; norbait maitagarí izan oi da edeña edo ongilea dalako. Oso edeña ta ongilea da Andre Maria; beraz inor baño maitagaríago da. Erugabea ta edeñena dala diyo Espiritu Santuak berak; eguzkiaz jantzia, izañez burua lairondua ta oinpean ilargia duana. Ongilea dala, beriz, zeru-lufak daude aitortzen, guztiyoi on egitea beste atseginik ez dauka ta.

Oregatik Mariaren izena ezin entzun genezake, geure biotza pozez zabaldu gabe ta españak eztiz gozatu gabe. Jesus'en izena bezela Mariaren izena ere biotzean poza da, aoan eztiya ta belariyan durundi alaia; ain gozo ta maitagaría dalako, ezin mintza ta aitatu genezake, maitasunez biotza gartu ta irazeki gabe. Bere alaba maitale bateri Ama Birjinak esan ziyon, iru esker aundi auek iritxiko zizkiyola bere izena goratzeko ta agurtzeko saritan aoan artzen zuanari: Bere gaizakeriyen benetako damua, Jaunaren graziyan edo adizkidetasunean iraupena, ta betiko zoriona.

Onegatikan esaten digu Kenpis agurgariak: Atsekabetan poza arkitu nai badegu, Mariari deitu, Mariari eskatu, Mariaren mendean bizi, Mariakin negar egin, Mariakin poztu, Mariakin

Jesus biñatu; Jesus eta Mariaren izen eztitsuak esaten lo artu; berak sañitan esan bizitzan eta eriotzan.

Ama Birjiña ain maitagaría dalako, bere irudiari kantatzen zoratuta bezela egon izan dira santu asko, beren bular gañean burni goriaz Mariaren izena irañtu dute besteak; Sena'ko Bernardino doneak here maitea deitzen zion Ama Mariari; Neri'ko Pelipe doneak bere atsegiña; Ligorio'ko Albontzo'k bere biotza; beren pozkida, alaitasuna, zoriona ta zoramen zerutara beste done askok. Karmeldar done batek onela itzegin zion bein: Askok maite nazula badakit, ene Ama, baña maiteago zaitut neuk. — Bereala erantzun zion Andre Mariak esanaz: ¿Zer diyozu, seme, zer diyozu? Zerutik luñera bitarte laburagoa dago nik dizudan maitasunetik zuk didazunera baño.

Aurtxo Jesus'en Teresatxo doneak onela zion: ¡Ah! zein maite dedan Maria nere Amatxo kutuna! Eleiz - gizon izan banitz, nolako maitasunaz goratuko nuan!». Berari onela itzegiten zion: «Zeu baño zoriontsuago naizela badakizu, ene Ama maite oñek? Zu nere Ama zera, ta zuk ez daukazu nik bezela maitatzeko Ama Birjiña bat. Jesus'en Ama zerana badakit, baña neri eman dirazu zure seme ori, ta onek gurutzetik gure Amatzat utzi zaitu; onegatik zeu baño ere zoriontsuago gera».

Leonardo domeka'tar lekaide edo prañeak

beseun aldiz egunero agurtzen zuan Ama erukitsua.

Il zorian zegoala agertu zitzayon Andre Maria esanaz: ¿Il da nai dezu neurekin etofi, Leonardo? Ainbeste bider agurtu nazun Ama erukitsua naiz, eta zerura laguntzera natortzu.—Lo geratu zan bereala Leonardo, ta zeruan esnatu zan.

Guk ere maita dezagun biotz irazekiaz karmengo Ama, eriotzako orduan ondo sarituko gaitu-ta.

OTOITZA

Karmengo Ama laztan-maitagarria; zure seme maitetzat artu dituzu Karmengo kultura daramaten sinistun guztiak, eskeñirik Jaunaren auferako egizko Amaren arduraren berezia. ¡O Andre Maria erukitsua! zure jantzi goragari onek damakigun eskubideaz agurtzen zaitugu Amaren izen gozoaz; mun egiten diogu zure maitasunaren agerkai bedeinkatu oni, ta eskeñik beroenaz agurtzen zaitugu biotz oso-osoaz.

Zure biotzeko seme-alabak gera ta guttiz erukitsu begiratzen diguzu beti, ta begiratu maitale ori gure itxaropen eta gozotasunik samurera da. Eguzkiak alaitzen baditu loreak, gure biotzak alaitu, berotu

ta kementzen ditu zure begiratuak. Ez gaitzatzu, bada, galdu inoiz ere zure begietatik.

Orain beriz iritxi zaiguzu Bederatziurten onetan zure bitartekotasun gozotik itxaroten degun ontartea, gure animaren onerako bada. Onetarako otoi egiten dizugu biotz-biotzez esanaz: Agur Eregiña, Ama erukioña, gure bizi, gozotasun eta itxaropena... Salbe Rejina.

G e r t a e r a

Padua'ko galai batek karmengo kutuna maitasun aundiyaz jantzi zuan. Griña zitalak eta adizkide txarrek galdu eragin ziyoen gurasoakanako begiramen eta lotsa ta gauza onetarako zaletasuna. Baruko araren kezkek ezin eramanez, bere burua iltzea erabaki zuan. Bere bulafia batetik bestera zulatzeko asmoan zaztatu zuan indar guztiyaz, zorionez eskapulariyoa zeukan aldetik; baina burni zofotzak ez zuan sartu nai izan bere bulafean. Sakatu zuan bigarenez eta beriro ere ezin sartu izan zuan. Orduan begiyak argitu zitzaizkiyon, soñean zeraman eskapulariyoaren mirari aundiya zala ezagutuaz. Damutu zan eta andik auffera onbidean beti bizi izan zan, Ama Maria guztiz garbi ta erukitsuari ontarte aundi uragatik egunero esker ugari ta beroak emanaz.

ZAZPIGAÑEN EGUNA

IRAKURKIZUNA

Mariari opaltzeko eskeintzak

Jaungoikoaren Ama oso esku-zabal eta esker onekoa izanik, ontarterik aundienak ematen dizkigu gure eskeintza txikien ordaingarri. Jantzi birekin etorri bear dute berari eskeintzen dizkiogun egintzak: gogo zintzoa ta iraupena. ¡A! zenbat betiko ondatu diran, zeruratuko ziranak, Mariaganako jaieran azkeneraño iraun ez dute-lako.

Ona emen, bakoitzak nai duana aukeratu dezan, Mariari eskeñi genezazkion eskeintza ta opari batzuek.

Lenengo eskeintza: «Agur Maria». Pozaldi berezi bat ematen diogu aingeruaren itz auekaz agurtzen degunean. Gogo irazekiaz esan dezagun, bada, iru bider «Agur Maria», belauniko jañirik oeratzean eta jeikitzean, otoiztxo onekin batera: «Zeure Soñera garbiyagatik nere gorputz eta anima zaitu zazu gaur, ene Ama». Beste iru bider, lotsarik gabe kristau egiazkoak bezela, «Angelus» kanpaia goiz, eguerdi ta iluntzetan entzuten danean; eun eguneko barkamenak irabasten dira bera egiñaz. Baita esan bear da erlojuak ordu osua jotzen duan guztian ere, ta lan bat asitzean.

Bigarren eskeintza: «Bederatziurñak». Bere jaietarako bederatziurñena egiñaz gertatu ta bere egunean aitortu ta jaunartzea guztiz ona da.

Irugarren eskeintza: «Baraua». Biotza irabazten diyogu bere jaien aurregunean eta larunbatean barau egiñik. Ama Birjiñari era berezian ezkeñitako eguna da larunbata, ta bere jaietan askok meza entzun eta barau egiten dute.

Laugarren eskeintza: «Limosna». Atsegin aundia artzen du bere izenean limosnatxo bat egiten danean, batez ere larunbatean. Gregorio doneak diyo, Deodato zeritzayon zapatari batek asteko irabaziyaren erdiya eskaleen artean zabaltzen zuala larunbatetan eta santu batek ikusi zuala beretzako jauregi eder bat egiten ari zala zeruan larunbata guztiyetan.

Boskaren eskeintza: «Alkartasunak». Ama Birjiñaren izeneko anaidi edo kopradiyetan izenpetu ta ango eginkizunak ongi bete.

Seigarren eskeintza: «Agurtza edo eñosariyoa». Zenbatek beren pekatuen damutasuna iritxi, ondo il eta zeruratu ote dira jaiara ongarri onen bidez! Egun batean ere ez da utsi bear, bakarrik edo besteakin batera Ama Mariaren otoitzaldi au egin gabe.

Zazpigarren eskeintza: «Kutunak». Andre Mariaren guganako maitasunaren agerkairik ederrenak bere kutun edo eskapulariyo santuak dira, Karmengo Ama laztanaren eskapulariyoa batez ere.

Ona emen, kristau maitea, zure zeruko Ama omendu ta goratzeko eskeintza batzuek azaldu ta. Guztiak edo batzuek beintzat zuretzako artu itzazu. Zerurako mañadia ta zeruko atea Ama Maria dala badakizu, ta ez zazu aldegin, afen, iñoiz ere bere kerizpetik.

OTOITZA

Karmengo Ama laztan-maitagaña; giza-di guztia afiturik dago zure eskapulari-yodunai egin dizkiozun agindu ta eskeintza aundiaz; bera soñean daramatenak, zeure anaikide berezitzat artu dituzu; ta alkartasun onen bidez zure anai ta aizpak gera gu. Graziatzko anaitasun onen bañuan gaudela jakitea baño aintza ta gorapen aundiagorik ez degu nai guk bizileku onetan, ene Ama Maria; naikoa degu zoriyon au biotza pozik eukitzeko.

Zure Lagundiko ezaugañi au zure seme zintzo bateri dagokion bezela erabili dezagula iritxi egiguzu, Ama guztiz garbia; zure kutunak ez du estaldu ta babeztuko alpeñik Jaungoikoa maite ez duan biotza; pekatuz itsusitu degu orain arte gure anima eder au, baña barkatu Ama laztana;

barkatu, garbitasunaren Eregiña, zure laguntasunaz geyago ez degu loituko-ta.

Orain beñiz iritxi egiguzu Bederatziuren onetan zure esku ongiletik ditxarogun ontartea, gure animaren onerako bada; onetarako otoi egiten dizugu bioz-biotzez esanaz: Agur Eregiña... Salbe Rejina...

G e r t a e r a

Mila seireun eta ogeta bigarren urteko Epala' ren amalauan, Mantua'ko erian urkamendira zeramaten gizon gaizkile bat. Gaiztoa izan aŕen, ez zuan kentzen inoiz ere soñetik Karmengo Amaren kutuna, beragan itxaropen aundia zeukalako. Urkamendira igotzeko zeuden maletan goruntz zijoala, «Salbea»z aŕen eskatu zion Karmengo Eregiñari, ordu laŕi artan lagundu zegiola. Kateak lepoan urkatzeko jaŕi zizkio-tenean, didar bat egin zuan esanaz: «Eruki nazazu, ene Ama laztana». Bereala tramankulu aundiyari bira ta biraka eragiten asi zan gizon erailtzalea, lotuta zegon gizona itotzeko. Baña jaŕigariya! zartatu ta eten ziran bapatean kate guztiak eta luŕera erori ziran. Orduan gizona belauniko jaŕirik Karmengo Amari eskerik beroenak ematen asi zan; orduan gizon erailtzalea auferatzen zayo ta biotza zulatu ta erdibitu nai zion bertan il da uzteko; baña igartuta gelditu zitzaion besua jaso zuanerako.

ZORTZIGAREN EGUNA

IRAKURKIZUNA

Karmengo kutuna edo eskapulariyoa.

Amairugañen gizaldi erdiruntz, miña beñegun eta beñogei ta amaikagañen urtean, Aingeruen Eñegiña agertu zitzayon, otoi egiten zegoala, Simon Stok izena zuan karmeldar Lagundiko Aita Nagusiari, ta zerutik zekañen jantzia erakutzita itz oñoigari auek esan zizkiyon: «Artu ezazu, ene seme maite oñek, zure anaidiko jantzi au, nere amatasun eta zuentzat iritxi ditudan esker ugariyen agerkaiz; ez da ondatuko leizbeltzeko sugañetan, jantzi onekin iltzen dana; ona emen zeruratzeko ezaugañiya, galzorirako osasun-ituñiya».

Karmelo'ko Eñegiñak egun zorioneko oñetan ama bat zer dan argiro erakutsi zigun: Amat et dat vestitum. Norenak diran umeak jantzitik eza gutzen dirala esan oi da; Ama guztiz garbiak bere maitasunaren oroigaritzat kutun edo jantzi aberats au eman zigun, bere seme maiteak deiturik. Bizitzan, eriotzan eta garbitokian ontarte ugariak artzen dituzte eskapulario au daramatenak. Karmengo Ama gozoak kristau guztiyen artean bere seme-alabarik begikoenak bezela dauzka berak. Ardura bereziaz laguntzen diya beren galbide ta eloñiyotan, mirari askoren bidez ikusiya daukagun bezela. *Salus in periculis.*

Orez gañera irabazi aundiya datorkiye berengan karmeldar Lagundiko otoi, meza, laztasun eta beste egite on guztiyetatik, eta karmeldar anaikide ta done guztiyen irabazpenetatik.

Gero Garbitokian arkitzen diranerako ere barkamen ugariak daude. Gañera Juan ogeta bigarñen Aita Santuari esan zion Karmengo Amak, laiztefago aterako zituala Garbitoki'tik, batez ere il eta urango larunbatean. Baña ontarte ta irabazi onen gai izateko, lenengo: Bakoitzak dagokion mañan garbitasuna gorde bear du; bigarñen, Ama Birjiñaren Eleiz-Otoitz-Txikiya egunero esan; irugarñen, irakurtzen ez dakinak, Eleiz-barauak gorde ta ostiral-larunbatetan aragi janari utzi. Baña Karmengo kutunak dauzkan esker eta beste onalde guztiyai eragiten diyona *Signum salutis* deritzayona da. Eskapulariyo onekin iltzen dana ez da eroriko betiko leizbeltzera. Karmengo Ama erukitsuaren ardurapean jaieraz bizi izan dana ta bere jantzi maitagarri au soñean duala iltzen bada, betiko sugařetara ez da ondatuko. Orixe agindu digu zeruko atea ta pekatarien aldezlari erukiořa dan Jaungoikoaren Amak.

Soñean erabili, bada, beti eskapulariyo au, esker eta ontarte aundi au irabazteko; naiz egunez, ta gauez, naiz osasunez eta gaxorik egon, beti soñean euki; edozein ordutan il giñezke, ta soñean ez badaukagu zori artan, galdu genezake eskubide aundien ori.

OTOITZA

Karmengo Ama laztan-maitagaría; aundiya da aundirik bada, zure seme karmel-
daíai egin diozun eskeintza pozgaría, zure
kutuna soñean dutela iltzen diranak eriotz
ona izango dutela aitortzea. Esan nai di-
guzu, gogo zintzoaz badaramagu zure jan-
tzi au, ta soñean degula iltzen bagera, ez
gerala ondatuko betiko sugaretara, eta
zoriondegirako izango gerala, zure bitar-
tekotasun aundiyak Jaunaren adizkidetzan
iltzea iritxiko digulako.

Burua luñeraño auzpezturik esker su-
tsuak egiten dizkitzut, Ama laztan maitea,
guganako dezun ardura aundi onegatik.
Bete egizu gurekin eskeintza ori, ta on-
tarte berezi au iristeko, añen, ez dezagula
ipini geuk eragozpenik. Izan zaite gure la-
guntza berezia gure il zoriko lañaldian.

Orain bañiz iritxi egiguzu Bederatziurén
onetan zure esku ongiletik itxaroten de-
gun ontartea, gure animaren onerako bada;
onetarako otoi egiten dizugu biotz-biotzez
esanaz: Agur Eregiña, Ama erukioña...
Salbe Rejina...

Gertaera

Segobiako Kastelmont deritzayon eñiyan Santiago Kalpe'ri tximista bat erori zitzayon, eta soñekuak kiskali ta begiyak eñe zizkiyon; ezin bizi zitekean, gizon antzik ere ez zeukan-eta. Ala ere gizon onek, soñean zeraman Karmengo eskapulariyoari eskerak, bizirik iraun zuan amabost egunean. Bitartean sakramentu doneak astiro artu ta larunbata egunean il zan.

Beste onenbeste gertatu zayo geure egunetan Ilario deritxayon gizon bati Jarazeko eñiyan. Basotik mando gañean zetoñela, tximista batek mandoa il eta berari soñeko guztiyak kiskali zizkiyon; bakañik gelditu zitzayon oso-osorik jantzita zeraman Karmengo kutuna, ta berari eskerak zegoan bizirik.

BEDERATZIGAREN EGUNA

IRAKURKIZUNA

Kutuna Mariaren oroipena

Gure gozotasun eta itxaropena deitzen diyo Eleizak Andre Mariari Salbe'ko otoitz eder-edeñean. Guztiz gozoa da egitan Karmengo Ama bere semientzat, ona ta eskertsua eskapulariyua darabilten guztiyentzat. Jaungoikoaren Amak zerutik ekañi digun jantzi maitagañiya da kutuna. ¡Bai itzal eta maitasunaz erabili bear degula jantzi zerutar au! Gizartean ¡zenbat poz-tutzen diran norbere eñiko ikuñña edo bandera ikusteaz, eta zein año eramaten dituzten bular gañean beren eñiko seme goitien irudiak! Bi-yotz maitaleak ¡zein zintzoro gordetzen dituzten maitearen eskutik datorzkiyen oroigañiak!

¿Ez da, bada, eskapulariyua ere zeruko Eñe-giñak bere semeai eman diyen oroiki bat? Oroigañi bat baño geiago ikusten du biotzak maitearen biotzeko eskeintzetan; biotza berbera ikusten du, ta onek dakar maitasun laztan-samuña. Oyal zati bat baño zerbait geixeago ikusten degu bai guk ere Karmengo Ama gozoaren kutunean. Maite-maite gaituan gure zeruko Amaren biotza ikusten degu, eñukiz begiratzen diguten begiyak ikusten ditugu, samurki lagun-tzen digun esku altsua ikusten degu.

Iluntasunez eta kezkaz beterik arkitzen dan animak laztantzen du kutuna bulañean estuturik,

eta gogo beroaz diyo: «Ez nazazu utzi, ene Amagozoa». Naigabe, zorigaitz eta samintasunez aulduta dagon biotzak kutunari munka diyo: «Zeruratu nazazu, lagundu egidazu, ene Karmengo Ama Erégiña». Bakartasun saminean iltzen dagoanak eskuetan artuta negar malko-ugariyaz buztitzen du eskapulariyo bedeinkatu au. ¡Ah! Alkari izketan daude biotz biyak: Mariaren biotza ta iltzen dagoana! Onek eskatzen diyo, ez dezala utzi bakarik ordu artan. Amak beriz, onela erantzuten diyo: «Emen nago ta ez bildurtu; neure semeakandik ez naiz aldendutzen ni». «¡O nere Jaungoikoa, esan genezake emen karmeldar lekaima edo moja Isabel agurgariakin bai pozgaria dana guretzat, kutun maitagari au biotz gañean erabiltzea!»

Amaitu dezagun jakintsu baten itz auekin: «Karmengo kutunak añan gure betiko zoriona gureganatzen duanik beste ezaugarri bat ez dago, beragatik guk maiteago izan bear degu beste edozein baño».

Beraz eskapulariyo onek estaltzen ez duan bularik ez du izan bear; umeai ipiñiko ez dion amarik ez du izan bear; berau sari goralduko ez duan eleiz-gizon edo mixiolaririk ez du agertu bear; gaxoai eramango ez dion sendagilerik ez da ikusi bear, azkenez ez du egon bear inon kutun eder au bedeinkatuko ez duan mingañik, lantanduko ez duan espanik, maitatuko ez duan biotzik.

Otoitza

Karmengo Ama laztan-maitagaña; zure karmeldar seme laztanai bizitzaldiyan agindu dizkiyezun laguntasunak gutxi balira bezela, beste bizitzarako ere maitasun ez irazekirik eskeintzarik gozoenak egin dizkiezu, esanaz; Garbitokiko oñaze ikaragañiyetatik aterako dituzula, eriotz ondorengo larunbatean edo ainbat laisteren.

Aundiya da benetan zure seme zorioneko auei erakutsi diyezun maitasuna. ¿Nor ez du izan naiko beren arteko bat? ¿galduko ote ditugu ontasun ain bikañak, geure aldetik zertxobait ez egitea? ¡Guk ez beintzat, ene Ama zoragaña! Zeure jantzi onekin babesturik bizi nai degu; berari laztanka azkenengo arnasa eman nai degu; bizitza onetan zeurekin bizi ondoren, garbitokitik lenbait len er ten eta Jaunaren aunditasunak abestu ta kantatu ditzagun zeurekin amaigabeko egunetan.

Orain beriz iritxi egiguzu Bederatziuren onetan zure esku ongiletik itxaroten degun ontartea, gure animaren onerako ba-

da; onetarako otoi egiten dizugu bioz-biotzez esanaz: Agur Eregiña, Ama erukioña... Salve Regina...

Gertaera

Juan Bautista Bertran agurgariyaren bizitzako edesti edo kondairan irakurtzen da gertaera arigari au. Kastelōn'go erkian, Alkora zeritzayon eriko apaiz nagusia zala, ostiral gauetan sari entzuten omen ziran eleiz-baruan gaberdiruntz txilin eta txintxina soñu arigariak. Jakin nai aundiya sortu zitxayon alako ots arigari ayek, nundik zetozten ez zekiala, entzutean; eta egun batean entzun zuan karmengo anaikide edo kopradikoen animak zirala, ta era ofetan erakusten zutela beren poz aundiya larunbata egunaren asieran, egun onetan karmengo Ama etori ta garbitokitik zeruetara asko eramango zitualako.

OARRA

Eguneroko «gertaera» irakuri liteke eguneroko «Otoitza» baño auerago, baita irakuri gabe utzi ere, nai bada.

Karmengo Amari «Iruena» egin zeneikio lenengo iru egunetako otoiak arturik.

Soñean daramagun karmengo eskapulariyuari mun egiten diyogun bakoitzerako, 500 eguneko barkapenak eman dizkigu Benedito XV'garen Donepuruak, mila bederatzi eun eta amaseigar-engo Garilaren zortzian. Baña ez dira irabazten oren ordezeko dominari muin eginda.

OTOI GORALARIAK

Agurtu ta goratzen zaitugu Karmeloko Andre Maria, zure goitasuna ezaguturik, Aita Jaungoikoaren alaba zeralako. Aingeru ta zoriondun guztiak zoriondegian abestu ta kantatzen dizkitzuten aintza ta gorapenak, guk ere gogoz eta leyatsu abesten dizkitzugu erbeste onetan, eman zenigun kutunagatik eskeñak emanaz.

* * *

Agurtu ta goratzen zaitugu, Karmeloko Andre Maria, zure goitasuna ezaguturik, Seme Jaungoikoaren Ama zeralako. Aingeru ta zoriondun guztiak zoriondegian abestu ta kantatzen dizkitzuten aintza ta gorespenak, guk ere gogoz eta leyatsu abesten dizkitzugu erbeste onetan, eman zenigun kutunagatik eskeñak emanaz.

* * *

Agurtu ta goratzen zaitugu, Karmelo'ko Andre Maria, zeure goitasuna ezaguturik, (Goteunaren) Espiritu Santuaren uso maittea zeralako. Aingeru ta zoriondun guzti-

ak zoriondegian abestu ta kantatzen dizkitzuten aintza ta gorapenak, guk ere gogoz eta leyatsu abesten dizkitzugu erbeste onetan, eman zenigun kutunagatik eskerak emanaz.

* * *

Karmengo Ama done maitagarriya, zeure aintzaz eta erukitasunez beterik daude zeruak eta luñak. Karmeloko edertasunari beti aintza ta gorapena; naigabetuen itxaropena, neketan bizi diranen izar argia ta garbitokiko animen pozgarria dalako.

Nai z iru nai z bederatzi bider esan leike jai era ta beta izan ezker o.

Beti bedeinkatua ta goratua izan bedi Ama Birjiña guztiz garbia, Aitaren alaba, Semearen Ama ta Goteunaren maitea, erugabe sortua, Karmeloko edertasun eta apainduri zoragarria.

Ÿ. Regina Dekor karmeli, ora pro nobis.

R). Dedisti nobis signum protectionis tuæ.

OREMUS

Deus qui Beatissimæ semper Birjinis et Jenitrisis tuæ Mariæ singulari titulo karmeli Ordinem dekorasti; konzede propitius, ut cujus kommemorationem pio zelebamus offizio, ejus muniti præsidiis, ad gaudia sempiterna perbenire mereamur. Qui vivis et regnas in sæcula sæculorum.

SALBEA

Agur, Éregiña, Ama érukioía: gure bizi, gozo, ta itxaropena, agur ¡Zure deiez gaude Eba'ren ume erbestetuok: zuri aiezka, antsiz eta negarez negar-éi onetan. Ea, bada, itzuli itzazu gure bitarteko on orek, itzuli gugana zure begi érukitsu oiek, eta erbeste onen ondoren erakus zaiguzu Jesus, zure sabeleko Seme bedeinkatu ori. O Biozpera! O Érukioí! O Maria Birjin gozoa! Otoitz egizu gure alde, Jaungoikoaren Ama Done orek, Jesukristo gure Jaunaren aginduak irabaz ditzagun. Amen.

KARMENGO ANDRE MARIARI

ASTEROKO IKUSTALDIA

Maita - Damua

Bederatziur'ena'ren lenengo egunean bezelaxe
3^{gn.} ing.

Karmengo ene Ama gozo-gozoa, zeure oñetara pozez beterik nator, zeure ega-pean aldi atsegintsu bat igarotzera ta zeure adizkideakin dituzun pozkariaz gozartzera. ¡Ai, Ama maite-laztana, nere gogoaren alaitasuna! Zeure eskuetan daukazun eta nere bular gañean daramatan kutunak gogorazten die zure niganako maitasun biguna. Osasunaren iturria, galbidetan laguntza ta betiko pakearen ezau-garriya dala kutun au, zeuk aitortu dezu, ta berakin iltzen dana ez dala jausiko leizbeltzeko sutegi ikaragarria, zeuk agindu dezu.

Itz auek itxaropen gozoaz eztitzen dute nere biotza, ene Ama on-ona. Kutun maitagari au da zeure almen erukitsuaren agerkaia, ta ezeren bildur izango naiz, soñeko bikain onegaz babesturik banago?

Gaxo ta auldurik, miñez eta atsekabez arkitzen banaiz, zure kutuna laztandurik poztuko naiz; diabrua, gizakeria ta aragia beren maltzurkeri zimuraz nere kaltez jekitzen badira, zure kutun onegan arkituko det laguntza amaigabea. Ene Ama Andre Maria, Zu nere alde bazaude ¿zer egin lezake inork nere kaltez?

Etsai ta eraso guztien artean, bare ta paketsu egongo da nere biotza, Andre Maria'ren kutuna neregan eukirik, ondakerian erortzen utziko ez diralako. ¿Ez da ala, ene Ama maitea? Nere biotza, zeurea balitz bezela zaituko dezu, ¿ez da egiya? ¡Ai, Ama laztana, zein ona zeran! ¡zein biotz samura dan zurea! ¡O Karmengo Eregiña! ¿nola ez zaitut ezagutu lenago?

Oraintxe bai dakitela ondo, zure Karmelo'ko izenak daukan indara, negarezko ibar onetan bizi diranak poztutzeko. ¡Zein gozoa dan neretzat, zure oroipena! Nere biotza maitasunean irazekitzen da zure laguntza ta ontarteak ikustean. Neure esker ona erakusteko ¿zer egingo det? Zeu-

rea da nere gogoa, zeurea nere bizitza, zeureak nere gogapen eta asmo guztiak. Eskapulariyo au izango da, ene Ama laz-tana, ni zurea naizela ta Zu nere Ama, nere itxaropena ta nere guztia zerala go-goraziko ditan bitarteko edeña.

Zeure ondotik alde egin baño len, esker bat eskatu bear dizut, ene Ama maitea, nik emen maitakiro agurtzen zaitudan be-zela, begi onez begiratu nazazula eriotza-ko zorian bakañik arkitzen naizenian. Ez nazazu aztu une ikaragañi artan, zeure egape gozoan babesturik itxi ditzadan az-kenengo aldiz nere begiyak. Agur, Ama; zeure oñetan uzten det nere biotza; zaitu ezazu. Agur, Karmelo'ko edertasun eta apainduria; agur, Ama erukitsua, agur.

Emen esan litezke Andre Maria'ren Le-taniyak edo kirieleisonak.

Agur eskertsuak

1.^a Karmengo Ama maitea, bedeinkatua izan bedi zure izen gozoa, ta Aingeruak eta zorion-dun guztiak goraldtu zaitzatela, zeure kutun maitagañi au eman diguzulako. *Agur Maria...*

2.^a Karmengo Ama maitea, bedeinkatua izan bedi zure izen gozoa, ta goiaingeru ta

zoriondun guztiak goraldu zaitzatela, zeure kutun maitagari onen bidez nere arimako osasuna zeralako. *Agur Maria...*

3.^a Karmengo Ama maitea, bedeinkatua izan bedi zure izen gozoa, ta Aingeru-yargoiak eta zoriondun guztiak goraldu zaitzatela, zeure kutun maitagari onen bidez galzoretan zaitzen nazulako. *Agur Maria...*

4.^a Karmengo Ama maitea, bedeinkatua izan bedi zure izen gozoa, ta Aingeru Aldunak eta zoriondun guztiak goraldu zaitzatela, zeure kutun maitagari onen bidez nere etsayen indarrik azpiratu ta menderatzeko almena eman didazulako. *Agur Maria...*

5.^a Karmengo Ama maitea, bedeinkatua izan bedi zure izen gozoa, ta kerubiñak eta zoriondun guztiak goraldu zaitzatela, zeure kutun maitagari onegaz zeru-bidea erakusten diguzulako. *Agur Maria...*

6.^a Karmengo Ama maitea, bedeinkatua izan bedi zure izen gozoa, ta Aingeru-Serapiñak eta zoriondun guztiak goraldu zaitzatela, kutun maitagari onen bidez zeure seme berezia egin nazulako. *Agur Maria...*

7.^a Ama maite maitea, Karmengo Ama lazтана, nere biotz eta bizitza zure eskuetan ipinten ditut; bedeinkatua izan bedi zure izen gozoa gizalditik gizaldira; zeruko zoriondunak bezela lurreko sinistunak ere goraldu zaitzatela, kutun maitagari onen bidez zeurekin zoriondegian atsegintzeko itxaropena eman didazulako. *Agur Maria...*

Salve Regina, Mater Misericordiæ.

L. D. V. M. D. C.

